

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZEGAMAKO UDALA

Iragarkia

Udalbatzarrak, 2025eko urriaren 14an egindako bilkuran, hasiera batez onartu du 4/2025 zenbakia duen Kredituen Aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitateari dagokiona, Udalaren 2025eko Aurrekontuaren barruan.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34.3 artikulua eta berak zuzendutako 15, 17 eta 18 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, espediente hori jendaurrean jartzen da, ondorengo arau hauen arabera:

- a) *Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza-Kontuhartzaitetzan.
 - b) *Espedientea aztertzeko eta, hala bada gogokio, erreklamazioak aurkezteko epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
 - c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* 21/2003 Foru Arauko 17.1 artikuluan aipatzen direnak eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
 - d) *Inpugnatzeko arrazoiak:* Aipatutako Foru Arauko 17.2 atalean adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
 - e) *Aurkezpen bulegoa:* Udaletxeko Sarrera Erregistroan bulego orduetan.
 - f) *Errekurtsoa aurkezteko organoa:* Udalbatzarra.
- Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, aipatutako Kredituen Aldaketa behin betikoz onartuko da, beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.
- Zegama, 2025eko urriaren 20a.—Iker Zubeldia Katarain, alkatea. (7277)

AYUNTAMIENTO DE ZEGAMA

Anuncio

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada en día 14 de octubre de 2025, ha aprobado inicialmente el expediente de Modificación de Créditos 4/2025, en la modalidad de créditos adicionales, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento de Zegama correspondiente a 2025.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 34.3 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa, que remite a los artículos 15, 17 y 18 del mismo texto legal, se somete a información pública conforme a lo siguiente:

- a) *Lugar donde se encuentra:* Dependencias de Secretaría-Intervención.
 - b) *Plazo para examinarlo y, en su caso, para presentar reclamaciones:* 15 días hábiles contados a partir del siguiente también hábil del de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.
 - c) *Quiénes pueden interponer reclamaciones:* Los interesados que relaciona el artículo 17.1 de la mencionada Norma Foral 21/2003, además de los miembros que hubieran votado en contra del acuerdo.
 - d) *Motivos de impugnación:* Los señalados en el artículo 17.2 de la misma Norma Foral e infracción del ordenamiento jurídico.
 - e) *Oficina de presentación:* Registro de Entrada del Ayuntamiento en horas de oficina.
 - f) *Órgano ante el que se reclama:* El Ayuntamiento Pleno.
- Transcurrido el plazo de información expresado sin que se haya presentado reclamación u observación alguna, se entenderá por aprobado definitivamente el mencionado expediente sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.
- Zegama, a 20 de octubre de 2025.—El alcalde, Iker Zubeldia Katarain. (7277)